

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Brainstorming bat egin dugu eta ideia zaparradaren ondorioz azkenean 5 ideia nagusi atera ditugu, eta gure azken balorazioan apunteen salerosketa eta klase birtualak erabaki ditugu egitea.

Azkenean taldekideak aukeratutako ideia apunten salerosketa digitalean aritzen den enpresa bat garatzea da, hau da, beste ikasleek egindako (eta enpresak erosi duen diru kantitate txikiagoren truke erositakoak) edo instituzioak garatutako apunteak (elkarte dokumentuan garatzen dugu ideia hau) salduko ditugu era digitalean (PDF, Word edo Excel bezalako formatuean).

Ikasleak izan diren pertsonak eta talde bezala, enpresa honen garapena aurrera eramatea erabaki dugu; gure ustez beharrezkoa delako ikasleen ikasketa-prozesuan laguntzen eta asistitzen duen sareko zerbitzu bat. Notes' Market deitu dugu gure proiektuaren enpresari. Webgune bat da: klaseak online, adituekin tutoretzak edo hitzaldiak eta hainbat ikasgaietako apunteetarako sarbidea eskainiko du.

Alde batetik, ikasleak garenez, ikusten dugu merkatu honen garrantzia eta aukerak. Askotan kalitatezko apunteak izatea, ikasketetan emaitza hobekia lortzea ahalbidetzen du, baina guztiok ez daukagu hauek egiteko denbora. Beraz, gure enpresa ikasleak asko lagundu ahal du eta erabiltzaile posible asko ditu. Gainera, irakasle partikularrak kontratatu ahal izatea erraztasunez oso erabilgarria da eta tutoretzak izateko aukera pertsona asko erakarri ahal ditu.

Beste aldetik, zure apunteak enpresari salduz diru erraz irabazi ahal duzu. Ikasleak beti eskertzen dute laguntza ekonomiko extra. Bakarrik berri egin behar dituzu, izan ere, enpresak eskatutako ezaugarri espezifikoak bete behar dituzte (formatu digitala, letra tamaina, iturria, kolorea, justifikazioa...).

Formaren aldetik, gure enpresa bi modelo jarraitzen ditu, izan ere, bi alde guztiz ezberdinak ditu: klase partikularrak ematen duten irakasleak aurkitzeko sarea eta apunteak saldu eta erosteko merkatua.

- Lehenengoan, bitartekariak gara: erabiltzailea eta irakasleak harremanetan jartzeko sarea eraiki dugun mediatzaileak. Horregatik, erabiltzaile batek sareko irakasle partikular bat kontratatzen duenean, enpresak, ordaindutako diruaren zati txikia eramango dugu. Irakasle zuzena kontratazen ari zarela bermatzeko, bere titulu guztiak eta berari buruzko beste ikasleen iritziak enpresa egindako fitxategi batean ikusi ahalko duzu.
- Bigarreanean, apunten zatian, salerosketa prozesua da. Guk beste ikasle batzuk bidalitako apunteak erosten ditugu eta behin baino gehiagotan berriz saltzen ditugu. Horrela, ikasleak dirua irabazten dute eta guk ere bai. Zati honetan coins-ak behar dira, hau da, gure moneta propioa, modu askoz lortu ahal dituzunak: publizitatea ikusten, lagunak gonbidatzen edo divisa (€, \$, £...) baten truke.

Erabiltzaile posibleak, berez, DBH, batxilergoan eta unibertsitatean aurkitu ahal izango ditugu. Erregistratzean filtro batzuk bete behar izango dira eta, guri zure buruaren

informazioa emateko eta webgunean azaltzen den edukia erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitu ahal izateko.